

## SECCION AMENA

### Kapeteriko kontuba

Kapeteriyan ziran  
 iru lagun sartu,  
 baita pozik kapia  
 ta churrutak artu.  
 Ayen artian Jillek  
 nairikan pagatu  
 mutillari esan zijon  
 «aizak: ez kobratu»  
 Bañan egunak juanik  
 Jill orrek etzuben  
 utzitako kontuba  
 beñere pagatzen.  
 Orrengatik mutilla  
 arkitzen zan larri

batian egiñikan  
 itz abek alkarri:  
 —Kontub' arren kontuba  
 kontuban aldaka?  
 —¡A zer pillota, mutill,  
 orain dekan saka!  
 ¿Ez kobratzeko bada  
 ez nikan nik esan?  
 ¿eta zertan ari aiz  
 orain berriketan?  
 Eun urte gaitezen  
 izan gure jabe  
 pagatu gabe ni ta  
 i kobratu gabe.

MARCELINO SOROA.



### ¿ARDO ZALEA OTE ZAN GERO?

Argiñ bat beñ erori zan  
 Bostgarren bizitzatik  
 Urera, ta ala zion  
 Miñgabe irtenta andik:  
 «Ardotara erortzeko  
 ¿Nondik jauzi bear nuen nik?»

MIGUEL ANTONIO INARRA.